

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak erabilera kolektiboko 573 igerilekuren baldintza teknikoak eta osasun-baldintzak kontrolatuko ditu aurtengo udan

*Sorosleek desfibriladoreak erabiltzeko prestatuta izango beharko dute, nahitaezkoa izan ez arren haiek instalazioetan jartzea*

Lunes, 22 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak erabilera kolektiboko 537 igerilekuren baldintza teknikoak eta osasun-baldintzak kontrolatuko ditu aurtengo udan 263 instalazioetan, hau da, izaera familiar pribatu edo 20 etxebizitza baino gutxiagoko familia anitzeko izaera ez dutenak; hala, erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna bermatu nahi dira.



Nafarroako Gobernuak 573 igerileku kolektibo kontrolatuko dira aurtengo udan.

Horrenbestez, aisialdiko instalazio horien erabileratik sortutako arrisku fisiko, kimiko edo mikrobiologikoak prebenitu eta saihestu nahi dira, esaterako: traumatismoak, istripuak eta itotzeak, eta gaixotasun infekziosoak, digestiokoak, arnasketakoak eta azalekoak.

### Desfibriladoreak erabiltzeko prestakuntza duten sorosleak

Berrikuntza gisa, denboraldi honetan igerilekuen lan egingo duten sorosle guztiek behar bezalako prestakuntza jasota izango dute DESA izenekoak erabiltzeko, automatikoak edo erdi automatikoak diren kanpoko desfibriladoreak, nahitaezkoa izan ez arren instalazioek era horietako aparatuak edukitzea.

Gainera eta estreinakoz, Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasuneko Institutuak (ISPLN) aurten bere webgunean instalazioetako titularren esku erregistro-liburuko ereduak jarri ditu Excel formatuan, igerilekuetako uretan egin beharreko eguneroko kontrolen emaitzak (bi kontrol) idazteko lanak errazte aldera, eta denboraldiaren amaieran ISPLNi igorri beharko zaizkio.

Kontrol-lanak ISPLNk, Iruña eta Tuterako (ordezkaritza bidez) udalek eta Foruzaingoak egingo dituzte, eta Lehen Mailako Arretako ekipoen osasun-langileen laguntza jasoko dute, beharrezkoa balitz.

[ISPLNren webgunean](#), igerilekuak zaintzeko kanpaina honi lotutako informazio guztia topa daiteke; erabilera kolektiboko igerilekuen baldintzak

erregulatzen dituen araudia; erabiltzeko beste agiri batzuk; igerilekuen erabilerari lotutako zenbait patologia eta produktu kimikoen gaineko informazio-liburuxkak, bai eta aisialdi nahiz kiroltako instalazio horiek arriskurik gabe gozatzeko gomendio-gida bat ere.

Kontrol horietan, honako hauek egiaztatuko dira: administrazioaren baimenak; instalazioen ikuskapena eta foru-araudiak eskatutako baldintza tekniko nahiz segurtasunekoak betetzen direla ([123/2003 Foru Dekretua](#)) (irristakorrak ez diren zolak, inguruko eta sarbideko hesiak, basoen sakonerak seinaleztatzea, elementu ludikoak ikusaraztea, prestakuntza jasotako eta behar besteko sorosleak izatea, botikina...), bai eta ur nahiz airearen kalitatea aztertzea ere (estalitako basoen kasuan) Estatuko araudiak eska dezakeena ([742/2013 Errege Dekretua](#)).

## **25 zehapen-espediente 2014an**

Iragan udan, ISPLNk 25 zehapen-espediente egin zituen hautemandako akatsengatik edo araudia bete ez izanagatik, gehienak ura kontrolatzeko parametroen erregistrorik ez izateagatik (7). Beste 4 hasi ziren hamabostean behin egiten diren analisiak ez erakusteagatik; 3 basoko sakonera ez seinaleztatzeagatik; 2 botikineko oxigeno-botila hutsik izateagatik eta beste 2 instalazioetan, berrikuntzak ISPLNren aurretiazko txostenik gabe egiteagatik.

Gainerako zazpi espedienteak ireki ziren funtzionamenduko Adierazpen Arduratsua ez aurkezteagatik, botikinean ohol zurrunik ez izateagatik, adierazitako ordutegitik at irekitzeagatik (jakinarazi gabeko gau-festa bat ospatzea), turbidimetrorik ez edukitzeagatik, aldagelak behar bezala garbituta ez egoteagatik, eta eskailerarik nahiz klororik ez izateagatik.